

**ARKITEKTO TEKNIKO LANPOSTUARI DAGOKION ADMINISTRAZIO
BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOKO ERDI MAILAKO
TEKNIKARI MOTAKO PLAZA BAT BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN
EPAIMAHAIAREN ERABAKIA:
BIGARREN ARIKETAREN DATA ATZERATZEA**

Epaimahai kalifikatzaileak honako erabakia hartu du:

Lehenengoa.- 2026ko martxoaren 12an argitaratutako erabakiaren bidez, Oiartzungo Udalak deitutako arkitekto tekniko lanpostuari dagokion plaza betetzeko hautaketa-prozesuko oposizio-faseko bigarren ariketaren eguna 2026ko apirilaren 17an finkatu zen.

Bigarrena.- Hautaketa-prozesuan parte hartzen duten bi hautagaik eskaera bana aurkeztu dute ezarritako data aldatzeko, beste administrazio publiko batzuek ezaugarri bereko plazak (Administrazio Bereziko Eskala, Teknikarien Azpieskala, erdi mailako teknikari mota) betetzeko deitutako hautaketa-prozesuen probekin bat datorrelako.

Hirugarrena.- Aurkeztutako eskaerak eta dokumentazioa aztertu ondoren, egiaztatu da aipatutako beste administrazio publikoek deitutako hautaketa-prozesuetako probak Oiartzungo Udalaren deialdia baino lehenago finkatu zirela. Egoera hori kontuan hartuta, eta hautaketa-prozesuaren garapen arruntari kalterik eragiten ez diola ikusita, epaimahaiak egokitzat jotzen du bigarren ariketaren data aldatzea.

Horrenbestez, **bigarren ariketa 2026ko apirilaren 24an, goizeko 10:00etan, egingo da Oiartzungo Udaletxeko 2. solairuan (Done Eztebe plaza, 1).**

Laugarrena.- Erabaki hau Oiartzungo Udalaren webgunean argitaratzea.

Oiartzunen, sinadura egunean.

Epaimahaiko idazkaria

